

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### Zerbitzu kontratuaren esleipena, gazteen eta haurren aisialdia kudeatu eta dinamizatzeko

Alkatetzaren 2018ko martxoaren 2ko 180302A Dekretuaren bidez esleitu zen gazteen eta haurren aisialdia kudeatu eta dinamizatzeko zerbitzu kontratua, eta horren formalizazioa argitaratu egiten da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratuak 154. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

1. Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Legutioko Udala.

b) Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: [www.legutio.eus](http://www.legutio.eus).

2. Kontratuaren xedea.

a) Kontratu mota: zerbitzuak.

b) Xedearen azalpena: zerbitzu kontratua, gazteen eta haurren aisialdia kudeatu eta dinamizatzeko.

3. Aldizkaria eta kontratatzailearen profila: lizitazio iragarkia argitaratu zen eguna: 2018ko urtarrilaren 24ko ALHAO (10 zenbakia).

a) Izapidetzea: presakoa.

b) Prozedura: irekia, hainbat esleipen irizpiderekin.

4. Kontratua formalizatzea:

a) Esleipen eguna: 2018ko martxoaren 2a.

b) Kontratista: Frama Actividades Rioja SL.

c) Esleipenaren zenbatekoa:

– Gazteguneko zerbitzua: 25 euro orduko.

– Ludoteka zerbitzua: 50 euro orduko (2 begirale).

– Beste begiralerik behar izanez gero: 22 euro orduko.

– Pazko-asteko haur leku zerbitzua: 11 euro/egun/ume.

– Gaboneko haur leku zerbitzua: 11 euro/egun/ume.

– Txiki-Txoko zerbitzua: 10 euro/egun/ume.

– Uda-Txiki zerbitzua: 10 euro/egun/ume.

– Autobuseko begirale zerbitzua: 22 euro orduko.

– Haurrentzako Gabonetako Parkea (HGP): 20.000 euro.

– Liburutegi eta kultura zerbitzuarekin batera jarduerak egiteko zerbitzua eta "Hor konpon" aldizkaria egiteko udalaren zerbitzu teknikoei laguntzea: 700 euro.

– Ihauteriak: 1.750 euro.

– Behar bereziak dituzten umeentzako begirale zerbitzua: 22 euro orduko.

Prezio horrek bere barruan hartzen ditu lehiaketaren gai diren zerbitzuak kargatzen dituzten zerga, gastu, tasa eta ariel guztiak. Bere barruan hartzen ditu, halaber, lana burutzeko ezinbesteko diren joan-etorri, aseguru, gizarte segurantz... gastuak.

Legutio, 2018ko martxoaren 6a

*Alkatea*

**NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA**